

# Antxiñako fotografixak

## Oñatiko ikastoliaren hasieria



**A**urtengo ikasturtiak be ekin xau bere martxiari, eta aitzakixa horrekin argazki zaharren orrialde hone-tan fotografixa baten orde bi dakartzuegu. Oñatiko ikastoliaren hasierakua ditzuzue. Bata **inauguraziño-egunekua** da: 1967ko agorraren (irailaren) 17xan izan zan, domeka batian. Ikastolia aurrera atarateko sasoi haretan saiatu ziran ekintzaille, guraso eta irakasle batzuk agerketan dira bertan.

Eskolak egun batzuk geruago hasi ziran Kale Zaharreko kooperatiba gñian eguen ikasgela horretan, 28 neskatilla-mutiko eta andereño bakarrarekin. Sarrerria osteko kaletik eukan. Baimenak eta eskuraketako, ikastetxe hau Oñatiko parrokiaren habes-

peian jaixo zan **San Migel Ikastola** izena-  
rekin. Umerik gehixenak hiru urte eukain,  
nahiz eta banaka batzuk zahartxuaguak  
izan. Hona ezkerretik eskumara eta goititik  
behera goiko argazkikuen izen-abizenak:

**Goiko illaran zutik:** atzeco mutikua  
Iñaki **Urtzelai**; Joxe **Errasti**;  
Begoña **Jauregi**; Karmen **Aiastui**;  
Eli **Galartza**; Mari Tere **Urtzelai**  
eta Karmen **Ituarte**; Tere  
**Enparantza**; Arantxa **Galartza**;  
Miren **Zumalde**; Ixiar **Jauregi**;  
honen atzian Nati **Zelaia**; Eli  
**Igartzabal**; Manolo **Urtzelai**;  
Euxebi **Osa**; Milagros **Letamendi**;  
Alfonso **Agirre**; eta Juan Mari  
**Garai**.

**Beheko illaran makurtuta:** Leandro  
**Arrazola**; Jose Luis **Guridi**; Felix  
**Arregi**; Jabier **Letamendi**; eta Joxe  
**Otalora**.



Beste fotografixan, berriz, **Eli Igartzabal** andereñua ikusi geinke, lehenengo kurtsu haretako ikasle gehixenak eta beste umetxo batzuk inguruan dittalua. Argazkixa 1968ko maiatz aldera-edo ataratakua ei da, ikasturtiaren akaberako jaialditxo batian. Ezkerretik eskumara eta goititik behera hona umetxuen izenak:

**Goiko illaran:** Susana **Anduaga**; Jabi **Erostarbe**; Patxi **Izura**; Mikel **Ibarrola**; Joxe Mari **Urtzelai**; Agurtzane **Zabala**;  
Mikel **Iturraspe**; Belen **Guridi**; honen atzian Nekane **Jausoro**; X. X.; eta Ines **Maiztegi**.

**Beheko illaran:** X. X.; Mari Tere **Urtzelai**; Garbiñe **Garai**; Jabi **Arkauz**; Sorkunde **Arkauz**; Garbiñe **Romano**; Miren  
Maite **Elgero**; Teresita **Oleaga**; honen aurrian Mari Jose **Anduaga**; Pili **Urtzelai**; Iñaki **Moreno**; Itziar **Agirre**; Imanol  
**Galdos**; eta Iñaki **Galdos**.

J. E.

Argazkixak Julio Romanok bialdu dosku. Argibidiak, berriz, Felix Arregi, Karmen Ituarte, Manolo Urtzelai, Patxi Izura, Garbiñe Garai, Milagros Letamendi, Eli Galartza, Euxebi Osa eta Eli Igartzabalenen bittartez jakin ditzugu. Eskerrik asko danoir!

**Oharra:** fan dan hilleko argazki zaharrian Julio Gorostidi moduan etorrena Antonio da, bere anaia. Maixabel Aranbururi eskerrak jaso dogu zuzenketia.